

**2021EKO EKAINAREN 29AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:30etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko maiatzaren 25ean arratsaldeko 19:30etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*** 2021/05/25EKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Zinegotziek bere aldeko onarpena eman diote aktari.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO MAIATZAREN 17TIK EKAINAREN 21ERA (2021/115 - 2021/156).

Alkatetzak 2021eko maiatzaren 17tik ekainaren 21era bitartean (2021/115-2021/156) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- IRURAKO 2020KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Gorka Murua Alkateak hartu du hitza, 2020ko aurrekontu likidazioaren ondoren, eta prozedurari jarraiki onartu beharreko pausua dela Kontu Orokorra, behin iragarkia publikoki egon ondoren alegaziorik jaso ez dela ikusirik.

“2020KO KONTU OROKORRA ONARTZEA

Behin 2020ko ekitaldia amaiturik, Aurrekontuaren exekuzioa eta Likidazioa onartu zuen Irurako Udalak, 2021ko apirilaren 19an 79/2021 Alkateak emandako Dekretuaren bidez. Eta Dekretu horren berri eman zitzaion Udal Batza Osoari. Gainera, 2021ko apirilaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, 2020ko ekitaldiko komunikazioaren berri eman zitzaion batzarkide guztiei.

Geroztik, 2020 ekitaldiko Kontu Orokorra osatu zen, eta indarrean dagoen araudiari jarraituz, Kontuen Batzorde Bereziaren oniritzia jaso zuen 2021eko ekainaren 7an.

Jarraian, 15 lanegunez jendaurrean egonda, ekainaren 8 Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik.. Erakusketa publikoaren epealdian inolako erreklamaziorik jaso ez denez, hasieran emandako aldeko iritzia behin betikoa bihurtu da eta Udal Batza Osoak onartu behar du Kontu Orokorra uztailaren 31 baino lehen.

Beraz, indarrean dagoen araudia jarraituz, udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak bere oniritzia emanik, Udal Batza Osoari proposatu zaio 2020ko Kontu Orokorri behin betiko onarpena ematea. Horren aldeko 3 bozka jaso direlarik (EH Bildu eta EAJ) aho batez onartua geratu delarik.

Irura, 2021eko ekainak 22,an
Ogasun Batzordeko Idazkaria.”

BOZKETA: Aho batez onartua da.

4.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREKIN HITZARMENA 2022/01/01ETIK 2032/01/01 ARTE ONARTZEA.

Berriro ere, Gorka Murua alkateak hartu du hitza eta azaldu du Gipuzkoako Ur Kontsortziarekin hitzarmena berritu behar dela beste 10 urtez, hau horrela, udalak 123.686,22€ euro jasoko dituela eta aldi berean egin beharreko inbertsioak ere aurrikusita daudela, nahiz eta oraindik erabat itxita ez eduki erabaki hori.

Egingo den aldaketa bakarra ordainketaren kuotaren kalkuluarena izango da, hau da, etxebizitzetako ur kontsumoa bizikidetzak kopuruaren arabera izango da, nahiz eta alde txikia izan, ekonomikoagoa suertatzen delako. Hitzarmenak honela dio:

“IRURAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO GOMENDIO FORMALIZATZEN DUENA

AKORDIOAK

1- 2022ko urtarrilak 1etik aurrera (10 uteko iraupena du, 2032ko abenduaren 31a bitarte) ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bidez ematen jarraitzeko erabakia hartzea. Hain zuzen, Irurako

Udala Kontsortzio horretako kide da. Kontsortzioak Gipuzkoako Urak SA sozietatearen bidez emango luke zerbitzu hori. Zerbitzu horren barruan sartzen dira altako eta .bajako sareen kudeaketa, bai uraren hornidurari dagokionez, bai saneamenduari dagokionez ere, bai eta egin beharreko inbertsioak eta hobekuntzak egitea ere.

2- Uraren ziklo integralaren kudeaketarako sinatu beharreko gomendioaren testua onartzea, eta, gomendio horren bidez, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea uraren ziklo integralaren kudeaketa, likidazioa, tasen bilketa eta prezioak (zaborra ere sartu ahal izango da bertan).

3.- : Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako persona kopuruaren menpekoan izango direla eta pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango dela.

4- Irurako Udaleko, Gorka Murua Macuso, alkate-udalburuari ahalmena ematea Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin gomendioa sinatzeko, uraren ziklo integrala kudeatzeko.

5- Erabaki honi, eta bere edukiaren parte bezala erantsita doa onartu den lankidetzaren hitzarmenaren testua, 1.eranskin moduan.

I.ERANSKINA

IRURAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO GOMENDIO FORMALIZATZEN DUENA

IRURAn, 2021ko ekainaren 30ean

BILDURIK

Alde batetik, Olatz Peon Ormazabal andrea, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

Eta bestetik, Gorka Murua Makuso Jn, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

ESKU HARTZEN DUTE

Olatz Peon Ormazabal Andreak, GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAREN izenean, joan den 1998ko otsailaren 20ko GAOean argitaratu ziren erakundearen Estatutuek diotenaren

arabera duen ordezkaritza erabiliz.

Gorka Murua Makuso Jnk , IRURAKo udal Gorenaren izenean, Alkate-Lehendakaria izanik eta joan den 2021ko ekainaren 29an egin zen Udal-Korporazioaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren arabera egintza honetarako baimendua izan denak. Aipatutako erabakiaren ziurtagiria Udaleko Idazkariak izenpetuta hitzarmen honi eransten zaio.

XEHETASUNAK

Lehenengo.- Gipuzkoako Ur-Kontsortzioa Gipuzkoako hainbat udalek –horien artean IRURA– eratu duten elkarte-oinarria duen zuzenbide publikoko erakundea da. Honako hau da erakunde horren xedea: *“sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegituraren ezarrera eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, guzti hori baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera.”*. Estatutuetako xedapen horren arabera, Kontsortzioak IRURAKo udalerrian saneamendua eta ur-horniduraren “goiko” sarearen zerbitzu publikoa kudeatzen du.

Bigarren.- Kontsortzioaren Estatutuen 7.2. artikulua honela dio: *“hala erabakiko denean, Kontsortzioak ur-zikloaren helburuak zabal ditzake, interesa duten udalekin ados jarrita eta haiekin dagokion hitzarmena izenpetu ondoren”*. Kontsortzioko Batzar Nagusiak joan den 2000ko abenduaren 21ean egin zuen bileran hartu zuen erabaki hori.

Era berean, Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legeak, Udalek, horrela nahi dutenean, Hornidurako eta Saneamenduko Zerbitzua modu Kontsortzian eman dezaketela ezartzen du.

Hirugarren.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA toki-erakunde den aldetik, zerbitzu publikoak prestatzeko modu desberdinak erabil ditzake, beti ere, lege xedapenen arabera –Toki-Jaurbidearen gaitan indarrean dauden lege-xedapenen eraberritutako Testuaren 110.5. art.– eta estatutuetako xedapenen arabera –9. art.–. Zentzu horretan eta bere zerbitzuak kudeatzeko GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK kapital erabat publikoaz osatuta dagoen sozietate anonimoa du eratuta: GIPUZKOAKO URAK E.A.

Laugarren.- IRURAKo udalak interes handia du URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa, bi sareen kudeaketa sartuz, “goia” eta “behea”, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN eskuan jarraitzea, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez.

Beraz, beharrezko lege eta jardutze-ahalmena ezagutzen diote elkarri eta HITZARMEN hau KUDEATZEKO GOMENDIOA formalizatzen duena, izenpetzea erabaki dute

ondorengo atalen arabera.

ATALAK

Lehenengoa.- IRURAKo udalak, hitzarmen honen ondorioz eta *Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legearen* arabera, URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez, uztea erabakitzen du, honek hornidura eta saneamenduko “goiko” eta “beheko” sareen kudeaketa barnean hartzen ditu, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere. Horretarako, IRURAKo Udalak, GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOARI emakida, emarien ustiapenak, azterlanak, proiektuak, sareak eta instalazioak eta kontsorzioatutako zerbitzuak emateko gainontzeko baliabide guztiak ematea erabakitzen du.

Bigarrena.- IRURAKo Udalak, zuzenbide-ordenamenduak horretarako bidea ematen duen heinean, berak dituen aginpide, eskuduntza, eskumen, ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiak, zerbitzuak eta bere xede eta jomuga diren helburuak ematearekin zerikusia dutenak GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea erabakitzen du.

Hirugarrena.- IRURAKo Udalak, GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOAK aurkeztutako azterlan ekonomikoa onartzea erabakitzen du, hitzarmen honi erantsitakoa.

Laugarrena.- GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOAK IRURAKo udalerriko URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa 2022ko urtarrilak 1etik aurrera bere gain hartuko du.

Bosgarrena.- Gomendio honek gutxienez 10 urteko iraupena izango du. Epe hori pasa ondoren, Udalak erabaki dezake, bere kasuan, zuzenbide-ordenamenduak une bakoitzean bide ematen dion heinean beste edozein modutara zerbitzua ematea, horretarako dagozkion erabakiak hartuz eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion urratsak emanez, GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOARI sei hilabete LEHENAGO jakin araziz.

Behin hasierako 10 urteko epealdia pasa ondoren, aurreko zatian aurreikusitako berarizko uko egitea ematen ez bada, gomendioa luzatuta ulertuko da Udalak, bere kasuan, zuzenbide-juridikoak ematen dizkion eskumenaz baliatuz, zerbitzua beste modu batetara ematea erabakitzen duen arte. Hala eta guztiz ere, Udalak, bere kasuan, zerbitzua kontsorzioatutako eran ematea deuseztearabako balu, deuseztapena baino lehen, GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOARI ordaindu beharko zaio, zenbatekoa kalkulatu da hartuaz Kontsorzioak udalerrian egindako inbertsioak eta berrikuntzak eta IRURAKo Udalarik emandako konpuruak ken Kontsorzioak IRURAn inbertsio eta berrikuntzarako jasotako konpuruak. Kontrakoa gertatuko balitz, aipatutako konpuruak GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOAK IRURAKo Udalarik ordaindu beharko dio.

Seigarrena.- Zerbitzuaren tasak eta prezioak, baita udalerriko abonatuari aplikagarri diren ordenantzak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN proposamenez bere egunean IRURAKO Udalak onartutakoak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOKO Batzar Nagusiak urtero eguneratuko ditu, aipatutako tasen tarifa-egitura aldatu gabe.

Zazpigarrena.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK IRURAKO Udalari bermatzen dio, hitzarmen honen bitartez bere gain hartutako kudeaketagatik abonatuari eta bezeroei doakien edozein informazioari buruzko konfidentzialsuna eta isilpekotasuna bere langileek gordeko dutela, eta batez ere, Norberaren Datuak Babesteko, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak babestutakoak direnean, datu horietara zuzenki edo zeharka sarbidea dutenean edo kontratatutako zerbitzuaren ondorioz ezagutzen dituztenean, zein hitzarmen honek irauten duen bitartean zein hitzamina bukatutakoan.

Zortzigarrena.- Hitzarmenak izaera administratiboa du eta haren sorrera, ulerkuntza, aldaketa edo suntsiarazpenaren inguruan sor litezkeen arazoak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean konponduko dira.

Eta guztiarekin bat datozela agertzeko, Hitzarmen hau izenpetu egiten dute, bi aletan eta ondorio batetarako, esandako egunean eta tokian.

IRURAn, 2021eko, ekainaren 30ean.

Izenp.: Olatz Peon Ormazabal And.
Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Lehendakaria

Izenp.: Gorka Murua Makuso jn.
IRURAKO Alkate-Lehendakaria

Municipio		TIPO	IRURA
m3 baja/año		354.451	121.261
Habitantes		4.627	1.852
Tipo de material	Factor	ml	ml
Hierro Colado	100	683	0
Fibrocemento	90	5.400	228
Hierro Galvanizado	60	1.361	55
Polietileno Viejo	60	4.437	3.492
Polietileno Nuevo (ISO)	5	4.680	2.492
Fundición Ductil	5	5.376	4.587
Otros Materiales	90	2.074	734
Total	TOTAL mts	24.010	11.589
Compromiso de renovación en 10 años	%	ml	ml
Hierro Colado	70,1%	478	0
Fibrocemento	63,1%	3.406	144
Hierro Galvanizado	42,0%	572	23
Polietileno Viejo	42,0%	1.865	1.468
Polietileno Nuevo (ISO)	3,5%	164	87
Fundición Ductil	3,5%	188	161
Otros Materiales	63,1%	1.308	463
	TOTAL mts	7.982	2.346
	P.U.	Euros	Euros (IVA NO incl
Coste de la renovación: (171,00 euros/ml + IVA)	171,00	1.364.922,63	401.156,28
Rec. renovaciones en 10 años	0,404	1.431.980,02	489.894,44
Diferencia: Recaudación-Coste		67.057,39	88.738,16
Límite de pago al Ayto.	0,102	361.539,51	123.686,22

INVERSION RECOMENDADA EN 10 AÑOS (IVA incluido) 1.583.310,25 485.399

Estas cantidades se actualizan anualmente

PAGO EN 10 AÑOS (IVA incluido) 77.786,57 102.936

Nota: El resultado del compromiso de renovación RECOMENDADO en 10 años es orientativo, y puede verse alterado por circunstancias económicas, solciales, etc. En cualquier caso, queda garantizada la cantidad de 0,404 €/m3 a destinar a la citada renovación de la redes.

BOZKETA: Aho batez onartua da.

5.- 2021-KALD-0003 KREDITU GEHIGARRIA.

Gorka Murua Alkateak, hartu du hitza eta azaldu du, 2020an izan zen egoera berezia kontutan hartuta, 2021eko aurrekontuak ajustatuak egin zirela badaezpada ere. Gainera 2020ko likidazioa nola aterako zen ez zekitela, baina azkenean, Udalen Fondo Foralaren murrizketa ez zela hainbeste izan.

Halaber, 2021ean 2020tik datozen proiektu batzuk egingo direla, baina beste batzuek ez, beraz 108.000€ko kreditu txertatuan baja/anulazio batzuk izango direla eta azken finean, udalaren diruzaintza gerakinetik 52.000€ erabiliko direla, orotara 166.000€ kreditu gehigarria izango delarik.

Gaineratu du, legegintzaldi honetan hartutako hainbat konpromezu egin gabe zeudela eta horiek gauzatu nahi dituztela, hala nola, EAJk proposatu zuen komun publikoa.

Ane Jesus Leunda zinegotziak, hitza hartu du eta azpimarratu du, beraiek Irurako beheko partean egitea eskatu zutela.

Gorkak erantzun dio, partehartze prozesu bat eramango dela aurrera hori erabakitzeko, horretarako hainbat proposamen mahai gainean jarritz.

Biek baieztatu dute, herrigunean aukera gehiago daudela eta aldiz Irurako beheko partean ez dagoela komun publikorik eta pertsona helduak, normalki herriaren beheko partean elkartzen direla.

Honela jasotzen da dokumentua:

“ OGASUNEKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko dituzten sarrerek bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Idazkari kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 166.000,00 eurokoak, behin betiko onar ditzala.

Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkotzat jotzen duena ebatziko du.

IRURA, 2021ko ekainaren 22an
Ogasuneko Batzorde Informatiboko burua

Mikel Iturbe Saizar Jn.”

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.643.425.00.01 2021	AZTERKETA: ENERGIA INDUSTRIALDEA + NASEI	10.000,00	8.000,00	18.000,00

1 0000.643.924.00.00 2021	AZTERKETA: PARTE-HARTZEAREN PLANA	10.000,00	20.000,00	30.000,00
1 0000.120.920.00.00 2021	FUNTZIO. OINARIZKO ORDAINK. ADM. OROK	100.000,00	5.000,00	105.000,00
1 0000.210.165.00.00 2021	AZPIEG. KONPONKETAK KALE-ARGITERIA	10.000,00	4.000,00	14.000,00
1 0000.211.333.00.00 2021	ERAIKINAK. KONPONKETAK KULTUR EKIP.	2.000,00	4.000,00	6.000,00
1 0000.211.342.00.00 2021	ERAIKINAK. KONPONKETAK KIROL INSTALAZIOA	15.000,00	13.000,00	28.000,00
1 0000.211.920.00.00 2021	ERAIKINAK. KONPONKETAK ADM. OROKORRA	2.000,00	2.000,00	4.000,00
1 0000.227.151.00.00 2021	KANPONKO ENPRESEN LANAK. KONTRAT. HIRIGI	10.000,00	4.500,00	14.500,00
1 0000.623.342.00.00 2021	Igerilekuko ur kontrolaren neurgailua	0,00	6.000,00	6.000,00
1 0000.227.920.00.00 2021	KANPONKO ENPRESAK. BULEGO OROKORRA	0,00	4.500,00	4.500,00
1 0000.643.172.10.00 2021	Trafikoaren zarataren ebaluazioa	0,00	10.000,00	10.000,00
1 0000.601.172.00.00 2021	INBERTSIOAK ORIA ETA MALAKA GARBIKETAK	0,00	5.000,00	5.000,00
1 0000.643.337.00.00 2021	PROIEKTUAK: EU.PLAZA ETA HAURRESKOLA	0,00	20.000,00	20.000,00
1 0000.622.459.00.00 2021	Kaleko wc publikoa	0,00	60.000,00	60.000,00
GUZTIRA		159.000,00	166.000,00	325.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 0000.622.342.00.01 2021	ERAIKINAK: KIROLA	7.000,00
d	1 0000.211.231.00.00 2021	ERAIKINAK. KONPONKETAK GIZARTE LAGUNTZA	1.000,00
d	1 0000.211.323.00.00 2021	ERAIKINAK. KONPONKETAK LEHEN HEZKUNTZA	1.000,00
d	1 0000.213.920.00.00 2021	IBILGAILUAK. KONPONKETA ADM. OROKORRA	5.000,00
d	1 0000.643.425.00.01 2020	AZTERKETA ENERGIA	15.000,00

d	1 0000.823.920.00.00 2020	PERTSONALARENTZAKO AURRERAKINAK	500,00
d	1 0000.923.011.00.00 2020	EPE LABURRERAKO ZORRAREN AMORTIZAZIOA	500,00
d	1 0000.641.163.00.00 2021	LEASING. KALE GARBIKETA	2.000,00
a	2 0000.870.000.00.01 2021	REMANTE DE TESORERIA	51.844,00
d	1 0000.622.342.00.01 2020	ERAIKINAK. KIROLA	78.378,00
d	1 0000.781.321.00.00 2020	KAPITAL TRANSF - IKASETXEAK SORTZEA	3.778,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			166.000,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

IRURA, 2021eko ekainaren 8an
Kontuhartzailtzako arduraduna

BOZKETA: Aho batez onartua da.

6.- ORDENANTZA FISKALAREN (KULTUR ETA KIROL IKASTAROETARAKO TASAK) ALDAKETA PROPOSAMENA.

Gorka Murua alkateak hartu du hitza, haur eta nerabeei zuzendutako "Goiza pasa" udalekuetako tarifa igotzea erabaki dela 60 €tik 66€ tara eta aldi berean ordainketa epeak ere moldatu egingo direla, aste bakarrekoak izatetik hamabostaldikoak izatera pasatuz. Igoera hau onartzeko erabili den irizpidea, haurrek ekintzetan ordaintzen duten ordu/prezinoa izan da.

Halaber, orain eskeintzen ez diren ikastaro batzuk kendu eta berri batzuk txertatzeko ere balioko duela aldaketa honek esan du Alkateak, txukundu egingo dela eskaintza.

Irantzu Idazkari-Kontuhartzaileak gaineratu du, ur horniduraren tasetako atalean, 2.epigrafean hain zuen, gaur onartu berri den Gipuzkoako Ur kontsorzioaren hitzarmenaren data berriak jasoko direla, horrela, tarifa gaurkotuta geratuko delarik.

Testuak honela dio:

"OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA

2021ERAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAK HASIERAZ ONARTZEKO

2021 urtean indarrean dauden ordenantza fiskalen proposamena aurkeztu zuen Batzordeburuak ekainaren 22ko batzorde bileran. Bere hitzetan, ikasturte berriarekin batera emango diren kirol eta kultur ikastaroetako tarifak gaurkotu behar dira eta eskaintza ere aldatu egin da, halere ez dute aldaketa handirik proposatzen datorren urterako. Tarifak eguneratzeko Kultura eta Kirol zerbitzuetan, teknikariek luzatutako proposamena ekarri dute, bere horretan.

Halaber, Gazteria sailak ere tarifetako kopuruan ez, baina ordainketa epeak aldatu ditu haur eta nerabeen udalekuei dagozkionez.

Behin, haserako proposamena mahai gainean zelarik beste inolako proposamenik jaso ez denez, 2021erako ordenantza fiskalen jatorrizko proposamena hasieraz onartzeko diktamena luzatu zaio Udalbatza Osoari, batzordea osatzen duten kideen gehiengoaren oniritziarekin, aho batez onartu da.

Hasieraz onartzen diren ordenantzak, GAO-n argitaratu eta jendaurrean egongo dira 30 lanegunez.

Irura, 2021eko ekainaren 22an.- Ogasun Batzordeko Idazkaria”

Ogasun batzordeak, 2021eko ekainaren 22an eginiko bileran gai hau aztertu du:

“Kirol eta kultura zerbitzuen tasen ordenantza fiskal arautzailea aldatzeko proposamena”

Teknikariak adierazi du, Kultur eta kirol ikastaroen 2021/2022 kanpaina prestatzerakoan ohartu direla, eskaini nahi dituzten ikastaroen prezioak ez datozela bat indarrean dagoen tasen ordenantza fiskal arautzaileak agertzen diren prezioekin. Gainera, ordenantza fiskal horretan agertzen diren ikastaro batzuk gaur egun iadanik ez ditu eskaintzen udalak.

Ondorioz, batzorde honek proposatzen du:

Kirol eta kultura zerbitzuen tasak eguneratzea, era honetan geldituko direlarik:

Ikastaroak:

- Yoga Matrikula sei hilekoa: 105 €. Hiru hilekoa: 52.50€
- Hipopresiboak. Matrikula sei hilekoa: 100€ Hiru hilekoa:50€
- Mindfulness: Matrikula sei hilekoa: 120€. Hiru hilekoa: 60.€
- Pilates. Matrikula sei hilekoa : 100 €. Hiru hilekoa:50€
- Zumba: Matrikula sei hilekoa : 144€ hiru hilekoa: 72 €.
- Areto bizikleta. Matrikula sei hilekoa : 180€ Hiru hilekoa 90 €.
- FJZ(Forman Jarri Zaitzez):Matrikula sei hilekoa:144€. Hiru hilekoa:72€
- Cross training. Matrikula sei hilekoa: 144€. Hiru hilekoa: 72€
- Egur taila. Matrikula (ikastaro osoa): 125€.

- Haurren Irristaketa. Matrikula (ikastaro osoa): 66€
- Haurren DAD(Diziplina Anizetako Dantzak). Matrikula (ikastaro osoa): 66 €.
- Haurren eskalada. Matrikula (ikastaro osoa): 66€
- Haurren eskulanak: Matrikula (ikastaro osoa): 66 €.
- Haurren Antzerkia. Matrikula (Ikastaro osoa): 66 €.

Hobari fiskalak:

- Trinketeko kirol-guneko bazkidea:%10eko hobaria
- Familia ugaria: %20eko hobaria.
- Jubilatu edo pentsiodunak: %20eko hobaria.
- Langabetuak: %20eko hobaria.
- Gazte txartela: %20eko hobaria.
- Desgaitasuna duten pertsonak:
- Minusbaliotasun maila 100eko 33kotik 100eko 64koraino tarteko dutenek, %20ko hobaria.

Tarifaturako gaietarako buruzko espezializazio ikastaroak antolatzeke ahalmena izango du udalak. Ikastaro horien prezioa kostuaren arabera izango da. Era berean, bestelako ikastaroak antolatzea Udalaren eskumena da. Horrelakoetan, dagozkien kostuen arabera prezioak finkatuko ditu Udalak.

BOZKETA: Aho batez onartua izan da, aldeko 9 bozkarekin.

7.- EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA “LGTBI HARROTASUN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA”.

EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioa eta Noelia Lataburu zinegotziak irakurri du:

LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainak 28

52 urte igaro dira **Stonewallen** lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpena eta xantaiaren aurrean erreboltatu zirenetik: data hori mugarri bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan. 10 urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errenteriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan **LGTBI pertsonak eta kolektiboek Euskal Herriko kaleak hartzen dituzte** estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatuz.

Stonewalleko gertakarien geroztik ekainaren 28an **LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna** ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da,

baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere: eskubide berberak dituen jende askearen gizartea izateko, sexu-desioaren orientazioagatik edo genero-identitateagatik bereizkeriarik gabe.

Urtebete baino gehiago igaro da pandemiak gure bizitzak gogor astindu zituenetik. Informazio eta datu askoren arabera badakigu jada konfinamenduak LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio-maila handiagoak ekarri dituela; haien eskubideak bermatu beharrean, urratuak izan dira, zaurgarritasun bereziko testuinguru batean. Are gehiago, gaur egun krisi sozioekonomiko larriak ate joka dugunean, gorroto-diskurtsoak eta erasoak areagotzen ari dira, eta LGTBI pertsona askoren bizi-baldintza orokorrak prekarizatzen eta okertzen ari dira, batez ere bereziki zaurgarriak diren kolektiboenak, hala nola trans pertsonak, egoera administratibo irregularrean daudenak, arrazializatuak, etab. Bereziki kezkarria da Trans pertsonen aurkako gorroto diskurtsoen igoera.

Pandemiak agerian utzi du eskubideetan egindako aurrerapenak, kolektiboen eta ekintzaileen urteetako borroka neketsuari esker lortu direnak, hauskorak direla, eta oso erraza dela horiek galtzea eta atzera egitea. Orain, osasun-krisitik ateratzen ari garenean, "normaltasun" desiragarria itzultzearen diskurtsoak gailentzen ari dira: normaltasun horrek, ordena sozialean mendeko egoeran daudenentzat, bazterretan daudenentzat, baztertuta bizitzen jarraitzea esan nahi du, beren eskubideez gozatu gabe edo dituztenak galduta ere bai.

Krisi-une honetan, inoiz baino gehiago konprometitu behar gara, konpromisorik gabeko adierazpen hutsak baztertuz. Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaurgarriek eskubide horiek izan ditzaten. Aitzakiarik gabe, politika eraldatzaileak eta nahiko baliabideak bermatu behar ditugu, gure udalerrri eta herrialdeetako LGTBI pertsonen beharrei eraginkortasunez erantzuteko: krisiaren ondorio negatiboak iraultzeko premiazko politikak eta sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik mendekotasunik eta hierarkiarik gabeko gizarte-eredurantz transitatzeko aukera emango diguten politika emantzipatzaileak, euskal jendarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko.

Urtero bezala, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu LGTBI kolektibo eta pertsona ugariren borroka luze eta ordainezina Euskal Herrian: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.

Era berean, udal honetan LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi dugu. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, bakoitzak bere giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomikoekin: mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkari eta adituekin adostu behar diren politikak.

Horregatik, udal honek konpromisoa hartzen du honako hau egiteko:

- 1) LGTBI pertsonen egoeraren eta beharren inguruko diagnostikoa egitea, pandemiaren krisiaren eraginaren ondorioz, beste erakunde, kolektibo eta gizarte-eragile batzuekin koordinatuta.
- 2) Egindako diagnostikoari erantzungo dion plan edo neurri-multzoa bultzatzea, premiazkoenak diren ekintzak lehenetsiz, besteak beste, arlo hauetan: soziala, enplegua, osasuna, etab. // Krisiari aurre egiteko plangintza orokorrean, gure udalerriko LGTBI pertsonen egoerari eta beharrei erantzuteko neurriak jasotzea.
- 3) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartzea.
- 4) LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea, hala nola: administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gainditzeko, instalazio publikoetan seinalizazioa egokitzea etab...
- 5) LGTBI biztanleriaren aurkako gorroto-diskurtsoak identifikatzeko mekanismoak ezartzea (behatokiak, aldizkako azterketa, etab.), eta hainbat eremutan (hezkuntza, kultura, komunikazioa, enpresa eta gizartea, oro har) diskurtso horiei eta jazarpen eta eraso LGTBI Fobikoei aurre egiteko ekintzak bultzatzea (sentsibilizazioa, protokoloak, araudi espezifikoak, etab.).
- 6) Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzea, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetzeta-planak garatuz, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.
- 7) Sexu eta genero disidentziaren gaineko prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.
- 8) Sentsibilizazio-kanpaina feministak egitea, egungo testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari, sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen adierazpen-aniztasunari eta eremu desberdinetan LGTBI pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.
- 9) Zaintzei buruzko lan-ildoak aktibatzea ikuspuntu feministatik eta LGTBI ikuspegitik, zaintza sare komunitarioekiko, kolektibo feministekiko, LGTBI kolektiboekiko eta beste gizarte-eragile batzuekiko lankidetzeta sustatuz: besteak beste, adinekoei, desgaitasuna dutenei edo gizarte-bazterketako egoeran daudenei arreta emateko zerbitzu publikoak berrikustea (egoitzetan, eguneko zentroetan, etxez etxeko zerbitzuan, etxebizitza komunitariotean eta abarretan arreta emateko protokoloak), eta ekimen komunitarioak abiaraztea.
- 10) Adinekoen egoitzetan, etxebizitza komunitarioetan edo eguneko zentroetan, besteak beste, hainbat neurri modu koordinatuan sustatzea, LGTBI pertsonen beren aukera sexuala eta genero-aukera askatasunez bizi ahal izan dezaten, diskriminaziorik gabe, eta, besteak

beste, honako hauek barne hartuta: sentsibilizazio-kanpainak, espazio bitarren berrantolaketa, eta LGTBI adineko pertsonen ekarpena ikusarazteko eta balioesteko jarduerak.

11) Indarkeriaren biktima diren eta egoera oso zaurgarrian dauden LGTBI pertsonentzako arretarako baliabideak bermatzea, arreta psiko-sozialeko, ekonomikoko, hezkuntzako eta bizitokietako zerbitzuak integratuz, adingabeen, migratzaileen, transexualen berariazko beharrak jasoz.

12) Zeharka, LGTBI kolektiboekin, kolektibo feministekin eta adituekin identifikatutako ekintza guztien diseinu, jarraipen eta ebaluaziorako elkarrizketa lotesle eta iraunkorreko espazioak gaitzea.

Herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako ekintzetan parte har dezaten

Denontzako askea eta bidezkoa den Euskal Herri baten alde!

BOZKETA: Mozioa aho batez onartua geratu da.

8.- GALDE-ESKAERAK.

Ez dago.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 20:00tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.